

TREBAKUNTZA 2015-11: PUNTUAZIOA II (KOMA)

OHARRA: izartxoaz eta letra etzanez idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *Bihar abenduak 1 Mikel Laboa hil zela zazpi urte beteko dira.
2. *Ez da indarrean jarriko dekretua sinatuta egon arren.
3. *Beraz bilera datorren astera atzeratuko dugu.
4. *Itzulpengintza juridiko administratiboa, hizkuntza normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.
5. *Abokatuaren txostenak ordea ez du gauza bera esaten.
6. *Lea Agirre arkitektoak adierazi du obra garaiz amaituko dutela.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Komak pausa laburra adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da batik bat:

- **Enumerazioetan.** Esaldian funtzio bera duten segidako elementuen artean eta tarteko lokailurik ez dagoenean:

Isabel, Miren, Ane eta Sara ikusi nituen bart.

- **Perpaua konplexuetan,** menpeko esaldia eta nagusia bata bestearen segidan datozenean, tartean inolako lotura-hitzik gabe.

Ez dio deitu arduradunari, behin baino gehiagotan esan diogun arren.

- Esaldiaren hari nagusia hausten duten osagaietan, baita **aposizioetan** ere.

Etxepare, lehen euskal idazlea, Sarrasketan jaio zela uste da.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

- Deiki edo **bokatiboa** (norbaiti edo zerbaiti deitzeko erabiltzen den hitza) bereizi behar denean.

Aizu, Edurne, zatoz lehenbailehen!

- Ondoko terminoek ere koma behar dute: **hau da, hots, esate baterako, azkenik, hala ere, adibidez, dena den, izan ere, beraz...**

Selektibitatean nota ona ateratzeko, ordea, asko ikas behar izan zuen.

Ez jarri koma bakarria subjektuaren eta aditzaren artean.

* *Edorta, bihar goizean itzuliko da lanera.*

* *Itzulpengintza juridiko-administratiboa, hizkuntz normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.*

Hala ere, betegarri edo osagarria sartuz gero, badaukagu subjektuaren eta aditzaren artean komak jartzea.

Edorta, dena ondo badoa, bihar goizean itzuliko da lanera.

Itzulpengintza juridiko-administratiboa, lehen esan bezala, hizkuntz normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.

Beraz:

1. Bihar, abenduak 1, Mikel Laboa hil zela zazpi urte beteko dira.
2. Ez da indarrean jarriko, dekretua sinatuta egon arren.
3. Beraz, bilera datorren astera atzeratuko dugu.
4. Itzulpengintza juridiko administratiboa hizkuntza normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.
5. Abokatuaren txostenak, ordea, ez du gauza bera esaten.
6. Lea Agirre arkitektoak adierazi du obra garaiz amaituko dutela.
Lea Agirrek, arkitektoak, adierazi du obra garaiz amaituko dutela.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)
- Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Ibon)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99